

Online aisialdi segurua



Oinarrizko 5 jarraibide



Deskargak ekiditu

Filmak, liburuak, musika, bideojokoak... ilegalki deskargatu beharrean, erosi, alokatu edo streaming zerbitzuak erabili. Saihestu streaming zerbitzu "piratak". Liburuak irakurtzeko online zerbitzuak ere badaude.

Nabigatzailea babestu

Gehitu segurtasun luzapen edo osagarriak zure nabigatzaileari. Adibidez, Adblock eta Traffick Light. Gogoratu app-ak denda ofizialetatik bakarrik deskargatzea.



Beti antibirusa

Instalatu daitekeen gailu guztietan izan beti antibirus bat, ordainpekoa edo doakoa. Pelikulen azpituluen artxiboetan ere badaude birusak.

Pribatutasuna eta segurtasuna

Erabiltzen dituzun online plataformetan segurtasun eta pribatutasun ezarpenak aktibatu. Ez hitz egin ezezagunekin.



Erabilpen denbora

Helduentzat 2 ordu egunean gehienez. Adingabeentzat asteburuetan bakarrik eta zenbat eta denbora gutxiago, hobe. Hartu atsedenaldiak, 45 minutu jarraian egoteak kaltegarria izan daiteke.